

JESUKRISTOREN JAINKOAGAN SIÑESTEA GAURREGUN

*Iruñe eta Tuteran, Bilbo, Donostia
eta Gasteizko Gotzainen idazkia
dala-ta*

Gure gotzainak urtero eskeintzen daukue gogo-opari bat. Fede ta kristau bizitzarako gaurko arazoaren bat izaten dabe gaitzat. Eta geienetan gaia sakon aztertuta ekarten dabe, kristau zentzunez ikertu ta adierazia. Aurtengo au aparteko eraz da garrantzizkoa, esentziala, bai gaiagaitik eta bai bere bearrizanagaitik. Non asten eta non amaitzen da kristau fedea, «Jesukristoren Jainkoagan» izan ezik? Zer dauka kristau fedea esatekorik, Jesukristoren Jaungoikoaren inguruan ez bada? Kristau fedea, guztiz ixilduko ez bada eta bere izatea ukatu, Jaungoikoaz berba egin bear dau. Benetan nor dan, zelakoa, zer egiten dauan gutaz, zelan billatzen dan, zelan gagozan beragaz.

Idazki au gaurko teologiaren eta kristau gogoketaren emoi neurritsu bikaiña dogu. Larregi gogoketa zorrotzetan sartu bari, olako idazki baten egitekoari ez dagokionez. Gaurko gogo ta bizitza egoeraren aurrean ernai eta adikor, bide ziur egoki ta eratsua eskeiñiz. Apaltasunez dagie berba: «Guk be, zuen gotzainok, ez dogu fedea argi osoz bizi, illunpetan baiño. Ez zalantza-

rik bako ziurtasunean, azken argi osoa ikustea itxaroten dauanaren segurantzian baiño» (10 zenb.).

Lenengo, gure inguruko egoerea aztertzen dabe, Jaungoikoagan siñesteari erasoten dautson egoerea. Iru motako erasoak ikusten dabe gure inguruan: siñesterik eza, sasi-jainkoen indarra eta fede itxurabakotua. Siñesterik eza: mendebaleko krisiak gogor jo gaitu, babesleku guztiak zapuztera eroanez. Politika krisiak be izan dau gure artean erlegiñoan eragiña (13 zenb.). Siñesterik ezaren erroctariko bat gizonaren neurribako aupatzea be bada; baiña beste alderdi on oneek be izan dabe parte: giza-askatasunaren alde jokatzek, gizarteko zuzentasuna eskatzek, eta munduko txarraren aurkako protesteak (14).

Sasi-jainkoak urrangoak izan leitekez, azken elburutzat itsu jarten diranean: dirua, sexua, indarra, aberria edo erria, erlegiñoa. Aipatutakoen artean barria erlegiñoa dogu; orregaitik, diñoa gotzaiñak: «guzurra badirudi be, sasi-jainko izatera eldu daiteke» erlegiñoa (20). Elizkizunak, legeak, egitekoak, azken elburu biurtzen diranean, Jainko maitasunaren bideak izan bearrean. «Sasi-jainkoak», irugarren mota barik, siñeste ezaren edo fede itxurabakotuaren ondorenak edo beste alderdia dirala esan lei.

Itxurabakotutako fedea saillea ia interesgarriagoa da fededunentzat. Emen sartzen dabe «biotz barnerako Jainkoa», au da, bear sikologikoen pozbiderako utsik dana; «gure interesen Jainkoa», politika zein gizarte ordenaren defendatzailea; «Jainko errikoia»; ziñuz eta irudiz aberatsa, giza-biotzondora eltzen dana, baiña arriskuak be badaukazana: erlegiotasun onek sarritan larregi be larregi markaten dau erruaren sentimentua, eta, beraz, ordaiña eskatzen dauan Jainkoa da; munduko eta betiko balioak negoziatu leikez Beragaz; «gure eziketaren Jainkoa»: parrafo au garrantzizkoenatarikoa dogu; leengo eziketaren Jainkoa epaille zorrotza da; lege estua emoten dau eta ukatu edo neurtu egiten dau gizona atsegiñera eta zorionera eltzea. «Alde egiñez joiatzanak, sufridu izan ei eben «Jainko ikaragarriaren» irudia gorrotatzen eben» Gaurko Jainkoa, ostera, dana ontzat emoten dauana dogu. Ez dauka zer nai dauan esateko adorerik; «Jainko muga-

tua»: Jainkoak saila bat artzen dau giza bizitzan, baiña bizitzako beste saila guztiak ez dauke Beragaz zerikusirik; «Gutziz bestelako Jainko urruna»: mundutik aldentutako Jainkoa, barea bere osotasunean, iñoren bearrik ez dauana, munduko goraberak ikututen ez dabena. Alperriko Jainkoa; «esanairik bako Jainkoa»: ez dau pozbiderik emoten, ez dau ezetara beartzen; noz edo noz baten autortzen da, baiña geienetan siñeskera au ateismo praktiko da (21-27 zenb.).

Oneek izan dira gaurko egoeraren alderdi batzuk margozteko zertzeladak. Baiña idazkiaren guna Jesukristoren Jaungoikoa aurkeztean dago, eta gero Bera Billatzen laguntzean. Gure Gotzaiñen aalegin guztia onetarako izan da: Jesukristoren Jaungoikoaren arpegi maitakorra erakusteko. Aurkezpen guztiz positiboa, baikorra egin nai izan dabe. 1. «Jainkoa, gizonaren billa»: «Jainkoak munduaren salbamena besterik ez dau nai, eta Jainko orrek Berengan artzen gaitu» (30 zenb.). 2. «Jainkoa, biziaren aldeko»: Askorentzat erlegiñoa ez da izan «Barri Ona», grazia, askapena, aringarria, poz eta indar-iturri; ainbaten kontzientzian amenazuka eta eskakizun gogorrez datorren Izakia da. Jesus'en Jaungoikoa, ostera, «gizakiaren bizitza salbatzeko bakarrik sartzen da, askatzeko, indartzeko eta gora jasoteko» (32 zenb.). 3. «Jainko apala»: ez jaku indarrez edo zalapartaz ezarten, ez gaitu bere aintzaz itsututen; grazi da adiskidetasun eskeintza da; istori barruan ezkutatuta dago; ez ditu ustekabeen munduaren norabideak aldatzen, baiña eguneroko bizitzako goraberetan dei ta ekeintza lez dago (34 eta 35 zenb.). 4. «Jainkoa maitasuna da»: «Jainkoa maitasuna besterik ez da; ori oiñarritzat arturik asi bear dogu Jainkoaz pentsaten» (36 zenb.). «Bada morala ulertzeko eta Jainkoaren legeari obeditzeko era bat, ez gizatasunik ez askatasunik emoten ez dauskuna». Ostera, «kristau moral guztia, Jaungoikoagandik sortzen dan maitasun orren zabalkundea eta zeazketa besterik ez da» (38 zenb.). 5. «Jainkoa Aita da»: onek au esan gura dau: «Aitaren egiazko maitasunean sustraiak botata daukaguzala jakitea eta geure artean senide izatearen erantzukizuna daukaguzala konturatzea»; ez Aren naikerizko indarragaitik bildurtuta, ez urtenbidebako erruak persegiduta. (39-40). 6. «Beartsuen Jain-

koa»: «Beartsua Jainkoaren benetako sakramentua da. Benetako Jaungoikoagaz egiten dan alkar aurkitzerik garbiena eta ezelako zalantza bakoa beartsuari egiten jakon serbitsu askatzaille orretan dago». (41). 7. «Jainko krutzeratua»: «Jainkoaren benetako indarra indarrrik ezcan agertzen da. Jainkoa indarbakoa eta aula da mundu onetan; orrela dago gure ondoan eta orrela bakarrik salbatzen gaitu» (43). Krutzean agertzen jaku Jaungoikoaren maitasuna, eta orrek erakusten dauSKU Jaungoikoak, sufritzen dabenakaz batera sufritzen dauala. Ez dau emen fede arin eta norberekoiak balio; Beragaz eta gaur sufritzen dabenakaz bat egiñez bakarrik ulertu leike egi au (44). 8. «Jainkoa, gizonaren etorkizun». Jesukristoren berbizkundean Jaungoikoa agertu jaku giza istoriari bere bete emoten. Gizadia ez doa utsaren bidetik. Ganera, edo batera, Jaungoikoaren zuzentasunaren garaipena agertzen jaku (or. 45-46). 9. «Jainko irukoitza»: «Jaungoikoa ez da bere barruan itxita bizi zan bakartia» alkar-bizitza baiño. Eta orrela gure bizitzarako eredu eta jarraibidea dogu (47-49). 10. «Jaungoikoa gure itzaropen»: Berak emoten dauSKU maitasunak garraille urtego dauanaren seguridadea (50). (Puntu au «Jainkoa gizonaren etorkizuna» puntua lakoa da).

Laugarren eta azkenengo partean Jaungoikoagana biurtzeko bideak ikututen ditu idazkiak. Jaungoikoa billatzeko bide edo urratsen artean, «seiñale nagusia» dan Jesukristoren ondoan beste oneek aipatzen dira: izadia, ederraren bizikuna, giza-biotzaren naikunde neurribakoak, sufrimentuaren bizikuna be izan leiteke, giza-bizitzako bete-beteko bizikizunak, alkar onartu ta partatzea, giza-ontasuna eta biotz-zabaltasuna, santuen bizikizunak.. (57-66 zenb.).

Idazki onetan bein ta barriro emon jako aurrea munduan sufrimentua izateari: Munduko txarra zelan alkartu leiken Jaungoikaren maitasunagaz. Aipatu dogu erantzuna edo beintzat erantzunaren norabidea: sufritzen dabenakaz bat egiñik ulertu leike, or asmatzen dan maitasuna Jaungoikoaren bizikuntza dala.

Jainkoazko idea jatorra eta bizitza alkartzen ditu idazkiak. Olan, esate baterako, Jaungoikoa biziaren aldekoa izatea eta bes-

te gizakien biziaren balioa, edo Jainko-maitasuna eta gizarteko maitasuna, beartsuen Jainko krutzeratua eta beartsuen eta krutzeratuenganako gure jarrera. Fedea eta moral-bizitza alkarrerri lotuta, barruko berezko loturaz.

Idazki au gogoan artu ondoren, gauza bi geratzen dira oso garrantzizkoak kristau fedeaentzat:

1) *Fede bakoai buruz*. Idazkiak «ateoai» buruz egiten dau berba. Pentsa lei Jainko-fede explizitua ez dabenak Idazkiaren-tzat «ateoak» dirala. Eta ori, jakiña, eskubide osoz egin leike, maila explizituan orrelakoak dira izan be ta. Idazkiaren asmua, eta kristau iragarpenaren asmua, Jaungoikoaren fede explizitua, esana, autortua, lortzea da beti be. Alan be Idazkiak Jainko-urratsak aipatu ta gero, Rahner'en berbak dakaraz. Jakiña danez, berba orreen asmua ez da (teologo onen pentsakeran, eta beste batzuen pentsakeran) Jainko «urratsak» utsik izendatzea, Jaungoikoaren beraren bizikuntza implizitua (argi konturatu bakoa, izendatu bakoa, berba batera eldu bakoa) baieztatzea baiño. Idazkiak parrafo orren azkenean berea egiten dau pentsamentu au, teologoaren berbak aipatu ta gero olan amaitzen dau ta: «Orrelako bizikizunik euki badogu geure bizitzan, zelan edo alan Jaungoikoa bera aurkitzeko grazia izan dogula esan gura dau orrek» (66 zenb.). Beraz, «fede bakoakana» zuzenduriko kristau mezuak ez dau egin bear ezerezetik zerbaiterako bidea, implizitotik explizitorako bidea baiño: zelan edo alan bizi danetik, bere izenez autortzera. Idazki onck dakarzan gogoketak eta argitasunak, jakiña oso egokiak dirana orretarako. Baiña gure pentsakera geien baten oindiño bikotxa da, dualista. Pentsakera onck izan be errezagoa eta seguruagoa dirudi, eta zati baten bere egia be badau; baiña ez egi osoa ezelan be. Errezagoa da edo argiagoa olan esatea: onck fedebakoak dira, eta onck, fededunak. Baiña Idazki onen «Fede itxurabakotua» ondo sakondu ezkeru, ez dakigu ain argi eta ain seguru fede itxurabakotua noz dan oindiño kristau fedea eta noz fede-eza. Eta beste orrenbeste esan leike «fede bakoari» buruz be.

2) *Fede itxurabakotuari buruz*. Gatxa ta zaila dala Jaungoi-

koaren irudia giza-biotzean aldatzea autortzen dau Idazkiak (24). Olan da izan be. Ia eziñazkoa Baiña Idazkiaren bidean jarrita oar batzuk ekarri gura neukez alderdi batzuk argitzeko.

«Jainko errikoiak» errua eta ordain bearrizana markatzen dituala diño Idazkiak (23 zenb.); eta jarraian, «gure eziketaren Jainkoa» Epaille gogorra zala (24 zenb.; ikusi 13). Baiña kristau erriak nondik artu dau irudi ori, edo «elduak eta zaarrak» nondik artu dabe euren eziketa ori? Ez ete da izan ezelango errazoirik orretarako? Auzia subjektiboki da bakarrik gatxa ala objektiboki be bai? Idazkiak bere 54. zenbakian arazo oneri erantzuteko zer-bait diñosku: «Geienetan, fedebakoak «gizonaren etsaia dan Jaungoikoa» zapuztuten dabe, baiña Jaungoiko ori ez da Jesukristok agertu euskuna» (...) «Elizan bertan ez da benetakoa alegiñik egin Jaungoikoaren ezagutze jatorrean aurrera egiteko» (...) «Adibidez, guk errezelu aundiegiz artu ditugu jakintza maillako mobimentu askatzailleak, baita bizikidetzako molde demokrati-koen eta gizarteko zuzentasunaren aldeko mobimentuak, eta errezelu orreek erakutsi dabe, Jaungoikoari buruz guk daukaguzan ideak ez dabela Jaungoikoa biziaren Jaungoikoa eta Jaungoiko askatzaillea danik indartsu agertzen».

Beraz, erriaren Jainkoa eta eziketaren Jainkoa azken baten Elizaren Jainkoa be izan da. Eta Elizeak bakarrik, azken baten, aldatu leike itxurabakotutako Jainko-erudi ori. Idazki onetan gure gotzainak egin daben lez, edo egiten asi diran lez (asi, leenagotik asi ziran, baiña idazki berezi baten bidez, orain).

Baiña Jaungoikoaren irudia ez da zuzen Jaungoikoari buruzko gogoketa bategaz eratzen, garrantzi andikoa izan arren (Idazki au dan lez); fedea aurkezteko era guztiak, moral eta Elizeginkizun guztiak artzen dabe parte irudi ori eraten. Orain arte be euki dogu dikotomia: ez da falta izan Jaungoikomaitasunaren berbea; baiña ez eban bat egiten fede-aurkezpen eta kristau bizitza guztiagaz. Zeatz eta konkreto, errealdadearen Jaungoikoak ezereztuten eban askotan Jaungoiko teorikoa.

Orain, beraz, Juangoiko gogorraren eta Juangoiko balio

bakoaren arteko arazoa daukagu. (24). Orain arte Jaungoiko gogorra; orain balio bakoa. Zelan aurkeztu esijitzen dauan Jaungoikoa leengo gogortasunean jausi barik? Argi dago Jaungoikoaren zuzeneko irudia ezeze, batez be giza-erantzukizun Jaungoikoa dala emen auzia: azken baten benetako moralaren Jaungoikoa, au da, benetako giza-jarreraren Jaungoikoa. Idazki onek asi dau bidea. Baleiteke au gure gotzainen idazkirik biribillena eta garrantzizkoena izatea, naizta oiartzun aundirik izan ez.

Orregaitik, nire azken oarra au izango litzake. Zetako idazten dira olako idazkiak? Momentuko irakurgai edo itzaldi-gai izan daitezcan, gero aaztuteko? Penagarria da olako idazkiak ia urrats barik igarotea. Lenengo ta bein, bearbada larregi izaten dira. Gitxiago izan bea leukee eta obeto asimilatuak. Idazki au batez be luzaro ausnartu bea litzake gure Elizan, fedearen esentziaz dagi-eta. Lenengo, beintzat, argitalpen egoki bat egin bea litzake gentearen eskuetan eurrez zabaltzako erakoa.

Luis Arostegi